




2026eko **OTSAILEKO PROGRAMAZIOA**



Terciopelo azul
(David Lynch, AEB)
1986

AURKIBIDEA

OTSAILA
2026

SAIO BEREZIA
NAFARROAKO FILMOTEKA
EZINBESTEKO ZINEMA
HUAFILMAK. TXINARI
BURUZKO ZINEMA BEGIRADAK
ATENEOK AURKEZTEN DU...
PUNTO DE VISTA FOKUA
FILMOTEKA NAFARROAN

La noche de los muertos vivientes (The Night of the Living Dead)

George A. Romero (AEB, 1968)
Asteazkena 4 | 19:30h.
Or. 5

Navarra Tierra de Cine 2025

(2025).
Osteguna 5 | 19:30h.
Or. 7

El convento

Ángel M. Chivite eta Luis Galindo
(Espainia, 2025)
Osteguna 12 | 19:30h.
Or. 10

Un condenado a muerte se ha escapado (Un condamné à mort s'est échappé)

Robert Bresson (Frantzia, 1956)
Ostirala 6 | 19:30h.
Or. 12

La guerra ha terminado (La guerre est finie)

Alain Resnais (Frantzia, 1966)
Ostirala 13 | 19:30h.
Or. 13

El anacoreta

Juan Estelrich (Espainia, 1976)
Ostirala 20 | 19:30h.
Or. 14

Terciopelo azul (Blue Velvet)

David Lynch (AEB, 1986)
Ostirala 27 | 19:30h.
Or. 15

El último emperador (The Last Emperor)

Bernardo Bertolucci
(Erresuma Batua, 1987)
Asteazkena 11 | 18:30h.
Or. 17

Blue Sun Palace

Constance Tsang (AEB, 2024)
Asteazkena 18 | 19:00h.
Or. 18

Sutura simple

Laura Vargas
(Espainia-Taiwán, 2025)

Wuhan Zona Cero

Varios directores
(Espainia, China, 2021)
Asteazkena 25 | 19:30h.
Or. 19

La chica de la fábrica de cerillas (The Match Factory Girl)

Aki Kaurismaki (Finlandia, 1990)
Osteguna 19 | 19:30h.
Or. 21

Loubia Hamra (Alubias rojas)

Narimane Mari
(Argelia, Frantzia, 2013)
Osteguna 26 | 19:30h.
Or. 23

Ombuaren Itzala

Igandea 1 | 19:30h.
Or. 24

Informazio erabilgarria

Or. 25

FEBRERO OTSAILA 2026

PROGRAMACIÓN PROGRAMAZIOA



SAIO
BEREZIA



NAFARROAKO
FILMOTEKA



EZINBESTEKO
ZINEMA



HUAFILMAK. TXINARI
BURUZKO ZINEMA
BEGIRADAK



ATENEOK
AURKEZTEN
DU...



PUNTO DE
VISTA FOKUA

LUNES ASTELEHENA	MARTES ASTEARTEA	MIÉRCOLES ASTEAZKENA	JUEVES OSTEGUNA	VIERNES OSTIRALA	SÁBADO LARUNBATA
2	3	4 - 19:30h. SAIO BEREZIA La noche de los muertos vivos <i>(The Night of the Living Dead)</i> George A. Romero (AEB, 1968) 96' - V.O.S.E - 3€	5 - 19:30h. NAFARROAKO FILMOTEKA Cortos Navarra Tierra de Cine (2025) 100' - 1€	6 - 19:30h. EZINBESTEKO ZINEMA Un condenado a muerte se ha escapado <i>(Un condamné à mort s'est échappé)</i> Robert Bresson (Frantzia, 1956) 100' - V.O.S.E - 3€	7
9	10	11 - 18:30h. HUAFILMAK. TXINARI BURUZKO ZINEMA BEGIRADAK El último emperador <i>(The Last Emperor)</i> Bernardo Bertolucci (Erresuma Batua, 1987) 163' - V.O.S.E - 3€	12 - 19:30h. NAFARROAKO FILMOTEKA El convento Ángel M. Chivite eta Luis Galindo (Espainia, 2025) 99' - 1€	13 - 19:30h. EZINBESTEKO ZINEMA La guerra ha terminado <i>(La guerre est finie)</i> Alain Resnais (Frantzia, 1966) 117'	14
16	17	18 - 19:00h. HUAFILMAK. TXINARI BURUZKO ZINEMA BEGIRADAK Blue Sun Palace Constance Tsang (AEB, 2024) 117' - V.O.S.E - 3€	19 - 19:30h. ATENEOK AURKEZTEN DU... La chica de la fábrica de cerillas <i>(The Match Factory Girl)</i> Aki Kaurismäki (Finlandia, 1990) 69' - V.O.S.E - 3€	20 - 19:30h. EZINBESTEKO ZINEMA El anacoreta Juan Estelrich (Espainia, 1976) 104' - V.O.S.E - 3€	21
23	24	25 - 19:30h. HUAFILMAK. TXINARI BURUZKO ZINEMA BEGIRADAK Sutura simple Laura Vargas (Espainia, Taiwán, 2025) 10' Wuhan Zona Cero Hainbat zuzendari (Espainia, Txina, 2021) 54' - V.O.S.E - 3€	26 - 19:30h. PUNTO DE VISTA FOKUA Loubia Hamra <i>(Alubias Rojas)</i> Narimane Mari (Aljeria, Frantzia, 2013) 77' - V.O.S.E - 3€	27 - 19:30h. EZINBESTEKO ZINEMA Terciopelo azul <i>(Blue Velvet)</i> David Lynch (AEB, 1986) 120' - V.O.S.E - 3€	28

Filmoteca de Navarra Nafarroako Filmoteka



Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua



PUNTO DE VISTA



generazinema
ayudas/laguntzak

certamen
cortometrajes



QILI
FUNDACIÓN
FUNDAZIOA

NAVARRA ‡ NAFARROA

SAIO BEREZIA



Otsailaren 4an, **Zonbi Harrotasunaren Eguna** ospatzen da mundu osoan. Zonbi gaiaren zale guztiak askatzeko eguna da, bai liburuak, filmak, serieak, komikiak eta bideojokoak, hildako bizidunak protagonista dituztenak. Zergatik egun hau? Ospakizun horren arrazoia George A. Romeroren jaioteguna da, bera jotzen baita genero zinematografiko horren sortzaileztat ***La noche de los muertos vivientes*** (1968) kultuzko pelikularekin. Zinemagile hau ez zen izan zonbi gaiko film mota hau filmatzen lehena (cfr. ***Yo anduve con un Zombie***, J. Touneur, 1943), baina pertsonaia horien elementu bereizgarri batzuk sartzeagatik genero horren aitatzat hartu izan da.

Pertsonaia horiek pantailetatik desagertu ez ezik, orain arte bizitasun nabarmenez mantendu direnez (kontuan izan ***The Walking Dead*** telesailaren arrakasta, ***Resident Evil*** bideojokoa, Michael Jacksonen ***Thriller*** bideo klip mitikoa, etab.), egun egokia izan daiteke Zonbi moda honi hasiera eman zion eta zinemaren klasiko bihurtu den filma ikusteko.

LA NOCHE DE LOS MUERTOS VIVIENTES

(The Night of the Living Dead)

Asteazkena 4 | 19:30h.



Satelite batetik datozen erradiazioek fenomeno izugarri bat eragiten dute: hildakoak beren hilobietatik atera eta jendea erasotzen dute elikatzeko. Pennsylvaniako hilerri batean hasten da dena, non Barbarak, hildako bizidun batek eraso egin ondoren, etxalde baterantz ihes egiten duen. Bertan babestu da Ben ere. Barrikadak eraikiko dituzte gupidagabeen zombietatik defendatzeko, buruan kolpe bat emanaz bakarrik garaitu daitezkeenak.

Zonbi zinearen azpigenaroa sortu zuen kultuzko filma, eta George A. Romeroren zuzendaritzapean egindako debuta. Filmotekak Hildako bizidunen gaua progamatu du Zonbien harrotasun egunerako eta otsailaren 4an ospatuko da, hain zuzen ere, George A. Romero filmaren zuzendaria eta generoaren sortzailetzat jotzen dena jaio zen egunean.

Zuzendaritza: George A. Romero

Gidoia: George A. Romero, John A. Russo

Musika: Scott Vladimir Licina

Argazkilaritza: George A. Romero (B/N)

Antzezleak: Duane Jones, Judith O'Dea, Karl Hardman, Marilyn Eastman, Bill Hinzman, Judith Ridley, Keith Wayne, George A. Romero, John Simpson

 **Herrialdea, Urtea**

AEB, 1968

 **Iraupena**

96 min

 **Hizkuntza**

B.O. ingelesez, azpitituluak espainieraz

 Aurkezlea **Julio Mazarico**

NAFARROAKO FILMOTEKA



Atal honetan Nafarroarekin lotura duten produkzio zinematografiko guztiak erakusten dira, edozein formatutan. Filmoteka batean, kontserbatu eta zabaltzeko interesgarriak diren ikus-entzunezko material guztiak biltzen dira; Nafarroako Filmotekaren proiektzio-aretoan, obra horiek sustatzeko eta aintzatesteko eszenatoki izateko bokazioari jarraituz, dokumentu horiek biltzen dira atal honetan.

Sail honetako lehen saioa, aurreko urteetan bezala, **Navarra Tierra de Cine** lehiaketaren azken edizioan egindako 10 film laburrak ikusiko ditugu. Lehiaketa hau 2013an sortu zen, Nafarroako ondare historikoa, kulturala eta natura-aniztasuna fikzioaren eta zinema-formatuaren bidez sustatzeko, bai eta ikus-entzunezko sortzaileei babesa eta laguntza emateko ere, beren istorioak Foru Erkidegoan errotu ditzaten. 2025eko edizioko 10 film labur finalistak urrian eta azaroan filmatu ziren honako herri hauetan: Viana, Pamplona, Tafalla, Olazti/Olazagutia, Mendavia, Ribaforada, Arguedas, Dicastillo eta Allo. Aurten sarien banaketa ekitaldia Tafallako Kulturgunean egin zen. Bertan, gainera, Ohorezko Zinemaren Nafarroako Lurra Saria (Premio Navarra Tierra de cine de Honor) eman zitzaion gure lankide Alberto Cañadari, Nafarroako Filmotekako programazio arduradunari, ikus-entzunezko kulturaren alde eta Nafarroarekin duten harremanaren alde nabarmendu diren pertsonen edo erakundeen lana saritzen duena.

Nafarroako zinemaren bigarren saioan Genera zinema laguntzak jaso zituen film bat da protagonista. **El convento**, Luis Galindo eta Angel M. Chivite errealizadore nafarrek zuzendua, bien arteko elkarriketa batetik sortzen da. Elkarriketa horren argumentu-ardatza esparru batean entzerratuta dauden eta munstro bati aurre egin behar dioten pertsonen ideia da. "*Las Monjas Satánicas de Corella*"-ren benetako historia aurkitzen dugu, eta bertan gure ideien eta 1750ean Nafarroako herrian gertatutako benetako gertaeren artean antzekotasun handia dagoela ikusten dugu, gure historiari behar genuen originaltasuna ematen dioten gertaerak. Zuzendariak gurekin izango dira *thriller* bizi honen emanaldian.



NAVARRA TIERRA DE CINE 2025 LEHIAKETA

Osteguna 5 | 19:30h.

[1/10] Amarraditos




Pepa eta Julian, jubilatu senar-emazteak, landa-spa batera doaz lasaitasun bila, baina beren nahiaren bidean galduta amaitzen dira. Galdutako giltza batzuek, sekretudun maleta batek eta ahaztutako herri batetik noraezean ibiltzeak urteetan atzeratutako aitorenak sorrarazten dituzte.

Kokapena: Tafalla

Zuzendaritza: Arturo Mombiedro (Kuenka)

Generoa: Drama komikoa

[2/10] Nahia y el guardián del bosque



Nahia, 10 urteko neska bat, baserri bakartu batean bizi da, zailtasun ekonomikoek markatutako guraso urrun batzuekin. Bere lagun bakarra Gudari da, bere txakurra. Egun batean, istripu bortitz baten ondoren, Nahiak basora ihes egingo du babes bila, eta han aurrez aurre aurkituko du basoa zaintzen duen eta bizitza aldatuko dion izaki mitologiko bat.

Kokapena: Olazti/Olazagutia

Zuzendaritza: Sara Oneca eta Javier Cabanas (Nafarroa)

Generoa: Drama fantastikoa

[3/10] El parque de los balas



Ruben, Javier eta Jose arratsaldero zelai batera futboleko jokatzeraz joaten diren hiru ume dira. Leku lasaia eta zabala da, eta parkea balitz bezala maite dute. Zelai horretan pisu-bloke bat egingo dutela jakiten dute; beraz, bertan geratzea erabakiko dute, „parkea” babesteko.

Kokapena: Iruña

Zuzendaritza: Mario Huerta (Aragoi)

Generoa: Komedia

[4/10] Corazón distinto



Juan Ramón Jiménez-en „Distinto“ olerkian inspiratutako film laburra. Gertakizunak Ribaforadan (1965) izan ziren. Laurak, Juanen amak, ezkutuko irratik transmititzen zituen olerkiak. Desagertu ondoren, Juanek arriskua bere gain hartzea eta bere ahotsa jarraitzea erabakiko du. Desberdina dena jazarria izan daitekeelako... baina bertsoek beti aurkituko dute soinua egiten jarraitzeko modua.

Kokapena: Ribaforada

Zuzendaritza: Gabriel Mansilla (Nafarroa)

Generoa: Drama historikoa

» **Soinu-bandaren aipamen berezia**

[5/10] Inmaculada



Nafarroako herri txiki batean, Ama Birjinaren kaperatxoa zaintzeko aukeratzan dute Inmaculada. Ohorea dirudiena odisea zentzugabe eta klandestino batean bihurtzen da irudia bere etxetik misteriozuzki desagertzen denean.

Kokapena: Dicastillo

Zuzendaritza: Guillermo Rojo (Valladolid) eta Jesús Cardiel (Valladolid)

Generoa: Ohitura komedia

» **Antzezpen onena Marta Ruiz de Viñaspre aktore protagonistari.**

[6/10] A fuego lento



Leirek Matias semea amama Martinarekin uzten duenean, „biloba zaintzeko“ aste lasaia espero du. Baina Matiasen jakingo du bere amonak eta lagunak ematen duena baino sutuagoa den bizitza bikoitza dutela. Kroketen, sekretuen eta iltze-pistola baten artean, Martinak eta bere taldeak aiton-amona izateak ez duela abenturari uko egitea esan nahi erakutsiko digute... batzuetan maitasuna su motelean prestatu behar bada ere.

Kokapena: Allo

Zuzendaritza: Adriana Pueyo (Nafarroa)

Generoa: Komedia

» **Publikoaren saria**

[7/10] Txoriak



Ane nerabea, ama galdu ondoren, aitonarekin bizitzera doa. Aitonak ez du hitz egiten, eta txistuka baino ez da komunikatzen. Isiltasunaren erdian, biak duelutik aska ditzakeen sekretu bat gordetzen duela jakingo du Anek.

Kokapena: Mendabia

Zuzendaritza: Sandra Iraizoz (Nafarroa)

Generoa: Drama

» **Epaimahaiaren sari berezia**

[8/10] Pluvia



Tradizioak markatutako landa-ingurune batean, Nereak aukeratu ez zuen bizitza bat heredatu du: nekazariarena. Aita zurrun batekin eta ama adiskidetzaille batekin bizi den bitartean, erabakitzeko lekuri uzten ez dion errutina bati zentzua aurkitzen saiatzen da. Elkarrizketa eta uneen bidez, egunerokotasunaren tentsio isilez ohartzen gara. Azkenean euria egiten duenean, etenaldi klimatiko hori ere bere su-eten emozional bakarra bihurtzen da.

Kokapena: Arguedas

Zuzendaritza: Iñigo Floristán
(Nafarroa)

Generoa: Dokumental faltsua

» **Argazkirik hoberena**

[9/10] Cruce de caminos



Ferran eta Marga Done Jakue bidean aurkitzen diren belaunaldi desberdineko bi pertsona dira. Ferranek gogoratu nahi du eta Margak ahaztu. Uretatik kanpo dauden bi arrain dira, berriro konektatu behar dutenak.

Kokapena: Viana

Zuzendaritza: Bárbara Fernández
(Huelva)

Generoa: Abenturak/ Drama

» **Bigarren saria**

[10/10] Bigarren kontaktua



1980an OHE (Objetu Hegalari Ezezagun) begiztatze misterioitsu bat erregistratu zen Errege Bardean. Berrogei urte geroago, Álvaro konbentzituta dago fenomeno berrir errepikatuko dela, eta Marcos lagunik onena arrastatzen du dokumentatzeko. Bidaia ustekabeko bira ematen du Lucia, Marcosen neska-lagun ohia, bidean gurutzatzen denean. Gaitzespenen, tentsioen eta teoriak konspiranoikoen artean, misio zentzugabe gisa hasten dena uste zutena baino zerbait handiagoa izan liteke.

Kokapena: Arguedas

Zuzendaritza: Carlos Godoy
(Andaluzia)

Generoa: Komedia/zientzia fikzioa

» **Lehen saria**



Aurkezlea **Marcos Perera**

EL CONVENTO

Osteguna 12 | 19:30h.



Bi neska komentu batean sartzen dira XVIII. mendearen erdialdean. Bertan, erlijio-bizitzaren itxurazko lasaitasunaren atzean, beren bizitzak amesgaizto bihurtuko dituzten misterio eta izugarrikeriak ezkututzen direla ohartzen dira.

El convento Nafarroako 1750ean klausurako komentu batean, „Corellako monja satanikoak” izenekoan, gauzatutako benetako gertakarietan oinarritzen da. Monja erlijioso batzuen deabrua gurtzeari buruzko inkisizio santuaren judizio dokumentatu bakarra da.

Filmak Nafarroako Gobernuaren Generazinema laguntzak jaso ditu



Zuzendaritza eta gidoia: Luis Galindo eta Angel M. Chivite.

Musika: Hernán González

Argazkilaritza: Iñigo Hualde (C)

Antzezleak: Ana Álvarez, María Mercado, Nahia Bergasa, Mentxu Vicente, Alfonsina Carrocio, Vanesa Baldonado, Alessandra Borgia

Herrialdea, Urtea

Espainia, 2025

Iraupena

99 min

Hizkuntza

B.O. espainieraz

Aurkezpena eta elkarriketa **Luis Galindo eta Angel M. Chivite.**

EZINBESTEKO ZINEMA



Nafarroako Filmotekaren programazioan finkatutako zikloetako bat da hau. Zinemaren Historian arrasto handiena utzi duten filmak modu ordenatuan erreskatatzen ditu, eta Zinemateka baten misioa betetzen du: "Zazpigarren artea" etiketa merezi izan duen zinemari egin dizkioten lanak erakustea. XIII. urtez jarraian, Nafarroako Filmotekak "zer da zinema?" galdera klasikoa hobeto ulertzeko beharrezkotzat jotzen ditugun filmen eskaintza antolatzen du.


Filmen aurkezpenari ordena kronologikoan eutsiko diogu, zinemak bere Historian zehar izan duen bilakaera modu naturalean jarraitzeko, Zinemaren Historia hamarkadaka film enblematikoak berreskuratuz, oraingo honetan urte biribilak beteko dituztenak, duela 80, 70, 60 eta abar urtekoak izango baitira.

Otsailean 1950etik 1980ra bitarteko hamarkadetan murgilduko gara, garai gozo, oparo, sortzaile (olatu berriak) eta zineman asistentzia gehien izan zuena, hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan zinema-aretoek oraindik pairatzen dituzten filmak ikusteko beste euskarri batzuen mehatxua agertzen hasi zen arren.

Frantziako zinema gogoratuko dugu, erreferente banatako bi filmekin (Bresson eta Resnais), *Un condenado a muerte se ha escapado* (1956) eta *La guerra ha terminado* (1966) filmekin, espainiar zinemara (*El anacoreta*), "Año Rafael Azcona" aprobetxatuz, bere jaiotzaren efemerideak bere filmografia berreskuratzeko balioko baitu, espainiar zinemako gidoilari onenetako bat bezala. Eta hilabetea David Lynch zinemagile bitxiaren lehen filmetako batekin amaituko dugu (*Terciopelo azul*, 1996).

UN CONDENADO A MUERTE SE HA ESCAPADO (*Un condamné à mort s'est échappé*)

Ostirala 6 | 19:30h.



1943ko apirilean, Bigarren Mundu Gerran, Lyonen. Fontaine 27 urteko frantziar erresistentziako kidea, nazien okupazioaren aurka borrokatzen dena, atxilotu egin du Gestapok galdeketa egiteko. Fontainek uste du exekutatu egingo dutela, eta ihesaldia prestatuko du.

Un condenado a muerte se ha escapado André Devigny soldadu frantses eta Erresistentziako kidearen memorietan oinarrituta dago, maisulantzat eta zinema frantsesaren historiako film garrantzitsuenetakotzat hartzen da. Filmak Zuzendari Onenaren Saria jaso zuen Cannesko Zinemaldian.

Zuzendaritza eta gidoia:

Robert Bresson

Musika: Wolfgang Amadeus Mozart

Argazkilaritza: Léonce-Henri Burel (B/N)

Antzezleak: François Leterrier, Roland Monos, Charles Le Clainche, Maurice Beerblock, Jacques Ertaud

Herrialdea, Urtea

Frantzia, 1956

Iraupena

99 min

Hizkuntza

B.O frantsesez, azpitituluak espainieraz

Aurkezlea **Roberto Peña**

LA GUERRA HA TERMINADO

(La guerre est finie)

Ostirala 13 | 19:30h.



Diktadura frankistan, Parisen bizi den Espainiako Alderdi Komunistako kide ospetsu bat Espainiara joaten da sarritan ezkutuan, diktaduraren aurkako erresistentziaren jarduerak antolatzeko. Hala ere, esfortzuaren alferrikakotasunak eta Alderdiaren ideologiarekiko gero eta etsipen handiagoa izateak adorea kendu eta eszeptizismoan erortzen da.

Gerra amaitu da. Izenburua Franco jeneralak 1939ko apirilaren 1eko gerraren azken zatian sortutako esaldiari dagokio. Jorge Semprun gidolari espainiarrak idatzi zuen, eta Resnaisen filmografiako funtsezko tituluetakoa bat da. Filmak Oscar sarietarako izendapena lortu zuen Jatorrizko gidoi onenagatik.

Zuzendaritza eta gidioia:

Alain Resnais

Gidoia: Jorge Semprún

Musika: Giovanni Fusco

Argazkilaritza: Sacha Vierny (B/N)

Antzezleak: Yves Montand, Ingrid Thulin, Geneviève Bujold, Jean Bouise, Jean Dasté, Michel Piccoli

Herrialdea, Urtea

Frantzia, 1966

Iraupena

117 min

Hizkuntza

B.O frantsesez, azpitituluak espainieraz

Aurkezlea **Asier Gil**

EL ANACORETA

Ostirala 20 | 19:30h.



11 urte dira Fernando Tobajasek, adin jakin bateko gizonak, bainugelan bizitzea erabaki zuela. Bertan apartamentu txiki bat sortu zuen inoiz bertatik ez ateratzeko. Tobajasek uko egin dio guztiari, harrokeriari izan ezik, eta munduarekin dituen harremanak lagunen bisita eta komunetik aspirina hodian barruan bidaltzen dituen mezueta mugatzen dira, norbaitek jaso eta bere existentziaren berri izango duen itxaropenarekin. Arabel Leek, neska eder batek, mezu horietako bat aurkitzen du.

Juan Estelrichen film luze bakarra da, Berlingo Zinemaldian *El anacoreta* filmak Aktore Onenaren Zilarrezko Hartza jaso zuen arren, ez zuen film bat berriro zuzendu.

Zuzendaritza: Juan Estelrich

Gidoia: Rafael Azcona, Juan Estelrich

Musika: Wolfgang Amadeus Mozart

Argazkilaritza: Alejandro Ulloa (C)

Antzezleak: Fernando Fernán Gómez, Mantine Andó, José María Mompín, Charo Soriano, Claude Dauphin, Maribel Ayuso, Eduardo Calvo

🌐 **Herrialdea, Urtea**
Espainia, 1976

🕒 **Iraupena**
104 min

🗣️ **Hizkuntza**
B.O espainieraz

Aurkezlea **Miguel Zozaya**

TERCIOPELO AZUL (*Blue Velvet*)

Ostirala 27 | 19:30h.



Goiz batean, Jeffrey Beaumontek, aita ospitalean bisitatu ondoren, giza belarri bat aurkitzen du zuhaixka batzuen artean. Paperezko poltsa batean gorde eta polizia-etxera eramaten du, non Williams detektibea, bere bizilaguna, aurkitzen duen. Horrela, intriga misteriotsu bat hasiko da, Ipar Karolinako herri txiki batean gertatutako gertakari bitxiak azaleratuko dituena.

Lynchen lehen filma da, *Cabeza borradora*, *El hombre elefante* eta *Dune* trilogiaren ondoren, azken horren porrot komertzialarekin amaitu zuena. Alabaina, Terciopelo azul filmak arrakasta handia izan zuen eta Lynch zuzendari gisa sendotu zuen, zuzendari onenaren Oscar sarietarako lehen izendapena jasoz.

Zuzendaritza eta gidioa: David Lynch

Musika: Angelo Badalamenti

Argazkilaritza: Frederick Elmes (C)

Antzezleak: Kyle MacLachlan, Isabella Rossellini, Dennis Hopper, Laura Dern, Sean Stockwell, George Dickerson, Jack Nance, Hope Lange, Brad Dourif

 **Herrialdea, Urtea**
Espainia, 1986

 **Iraupena**
120 min

 **Hizkuntza**

B.O ingelesez, azpituluak espainieraz

Aurkezlea **Patxi Benavent**

HUAFILMAK. TXINARI BURUZKO ZINEMA-BEGIRADAK



Qili Fundazioak eta Nafarroako Filmotekak zinema-ziklo hau aurkezten dute, *Huafilmak* izenburupean. *Txinari buruzko begiradak* (Miradas sobre China), kultura, pentsamendu eta begirada zinematografikotik Txinatar Mundura hurbiltzeko. Pelikula, topaketa eta jarduera paralelo zainduen bidez, Txinako eta inguruko errealitate desberdinak deskubritzera gonbidatzen gaitu, estereotipo eta begirada sinplifikatzaileetatik ihesiz.

Erakusketaren izenak txinatar izaera 華 (*huá*), txinatar distira eta kulturari lotua, eta Filmak, zinemaren hizkuntza unibertsala elkartzen ditu. Elkarrekin, borondate argia adierazten dute: zinema mundu garaikidearen errealitate konplexu eta erabakigarri bat hobeto ulertzeko abiapuntu gisa erabiltzea.

Lehen edizioan, eta Txinari buruzko begiradak lelopean, HUAFILMAKek Txinatar Mundua Mendebaldetik nola begiratzen dugun hausnartzea proposatzen du, hainbat narratibaren bidez. Zinemaren historia handietatik hasi, dokumentalaren esperientzia zuzeneraino, diasporaren narrazio intimoa barne. Txinari buruz ez ezik, irudiak eraikitze moduari buruz ere pentsatzera gonbidatzen gaituzten askotariko begiradak.

Saio guztietan proiektzioaren ondoren elkarriketarako gune bat izango da.

DATA	PROIEKZIOA	PARTE-HARTZAILEA
2025/02/11	<i>El Último Emperador</i> (Bernardo Bertolucci, 1987)	Andrés Herrera-Feligueras. Qili Fundazioaren sinologoa eta presidentea.
2025/02/18	<i>Blue Sun Palace</i> (Constance Tsang, 2025)	Maialen Apodaca Ibarguren. Sinologa. Qili Fundazioaren „Ding Ling” genero-programaren koordinatzailea
2025/02/25	<i>Sutura Simple</i> (Laura Vargas, 2025) <i>Wuhan Zona Cero</i> (Luis Galán, 2021)	<i>Sutura Simple</i> -ren Laura Vargas (zuzendaria) eta Laura Villanueva (gidoilaria) Luis Galán. <i>Wuhan Zona Cero</i> -ren zuzendaria

EL ÚLTIMO EMPERADOR

(The Last Emperor)

Asteazkena 11 | 18:30h.



Pekín, 1908. Txina gainbehera betean murgilduta dago. Pu Yi, hiru urteko mutikoa, amaren besoetatik erauzia da gauaren erdian, eta Hiri Debekaturaino eramana, non enperadore koroatzen duten, baina esparru eskuraezin honetan sarturik bizi beharko du. Oraindik gaztea izanda, iraultza garaian Pu Yi kargutik kendu eta lehen aldiz kanpoko mundura egokitu beharko da.

Filma Txinako azken enperadorea izan zen Pu Yiren benetako istorioan oinarritzen da. Erabateko arrakasta lortu zuen, Oscar sarietarako 9 izendapen jaso zituen eta izendatua izan zen kategoria guztietan estatuatxoa eskuratu zuen, Film Onenaren, Zuzendaritza Onenaren eta Egokitutako Gidoi Onenaren Oscar sariak barne.

Zuzendaritza: Bernardo Bertolucci

Gidoia: Bernardo Bertolucci, Mark Peploe, Enzo Ungari

Musika: Ryūichi Sakamoto, David Byrne, Cong Su

Argazkilaritza: Vittorio Storaro (C)

Antzezleak: John Lone, Joan Chen, Ryuichi Sakamoto, Peter O'Toole, Victor Wong, Constantine Gregory

 **Herrialdea, Urtea**
Erresuma Batua, 1987

 **Iraupena**
163 min

 **Hizkuntza**

B.O ingelesez, azpitituluak espainieraz

 Aurkezpena eta elkarriketa **Andrés Herrera-Feligueras**

BLUE SUN PALACE

Asteazkena 18 | 19:00h.



Amy eta Didi masaje-areto batean bizi dira eta bertan lan egiten dute Queens komunitate txinatarrean, New Yorken. Sorterritik urrun, barreak eta ametsak partekatzen dituzte familiako ardurak betetzen dituzten bitartean. Eguneroko ahalegin eta jardunaldi nekagarriak izan arren, elkarri eusten dien anaitasun sendoa osatu dute lankideekin batera. Ilargi Urte Berrian tragedia bat gertatzen denean, Amyk kontsolamendua aurkitzen du Cheungen, bere lagunaren maitale bakartian. Baina, bizirik irauteko, urrundu eta bere buruaz pentsatzen hasi beharko du.

Blue Sun Palace Constance Tsang-en lehen film luzea da. Bertan, zuzendaria hazi zen Flushing-eko (Queens auzoa, New York) bi etorkin txinatarren eguneroko bizitza aztertzen du. Filmak Canneseke Kritikaren Asteko Epaimahaiaren Saria jaso zuen.

Zuzendaritza eta gidoia:

Constance Tsang

Musika: Sami Jano

Argazkilaritza: Norm Li (C)

Antzezleak: Wu Ke-xi, Lee Kang-sheng, Haipeng Xu

Herrialdea, Urtea

AEB, 2024

Iraupena

117 min

Hizkuntza

B.O mandarin txineraz, azpitituluak espainieraz

Aurkezpena eta elkarriketa Maialen Apodaca Ibarguren

Asteazkena 25 | 19:30h.

SUTURA SIMPLE



Zuzendaritza: Laura Vargas
Gidoia: Laura Villanueva, Laura Vargas
Argazkilaritza: Laura Vargas (C)
Musika: Pablo Eguía
Parte-hartzailea: Laura Villanueva

Herrialdea, Urtea | **Iraupena**
 Espainia, Taiwán, 2025 | 10 min

Hizkuntza
 B.O espainieraz

Laura Taiwanera joango da txinera tradizionala ikastera. Denboraldi bat igarota erabaki bat hartu beharko du: Espainiara itzuli edo irlan hitzak buruz ikasten jarraitu.

WUHAN ZONA CERO



Zuzendaritza: Luis Galán,
 Ramón Campoamor, Haiyan Tan
Gidoia: Luis Galán
Musika: Li Xu

Herrialdea, Urtea | **Iraupena**
 Espainia, Txina, 2021 | 54 min

Hizkuntza
 B.O txineraz, azpitituluak espainieraz

2020ko urtarrila. Urte Berri Txinatarreko jaiak hasten dira Wuhan hirian pneumonia birikoaren kasu batzuk detektatzen diren bitartean. Egun batzuk geroago, izurritea benetakoa da, eta kaosa probintziaz, herrialdeaz... eta mundu osoaz jabetzen da. Film honek COVID-19 pandemiaren lehen hilabeteak erakusten ditu epizentroan.

Aurkezpena eta elkarrizketa **Laura Vargas, Laura Villanueva eta Luis Galán**

ATENEOK AURKEZTEN DU..



Urtarrilean Pedro, el negro (1963) filmearen proiektzioaren ondoren, "El Ateneo presenta..." (El Ateneo presenta) zikloa otsailean *La chica de la fábrica de cerillas* (1990) filmarekin itzuliko da, bi filmek maitasunaren eta gizarte konplexuetako lanaren errepresentazio pertsonalak dira eta Formanen filmarekin lotuta dau-de. *La chica de la fábrica de cerillas*-ekin, Aki Kaurismäki zinemagile finlandiarrak maisuki itxi zuen proletarioen trilogia, *Sombras en el paraíso* (1986) eta *Ariel* (1988) estreinaldien ondoren.

Aki Kaurismäki, zalantzarik gabe, gaur egungo zinemagilerik funtsezkoenetako bat da. Berlingo Zinemaldiko Oso de Plata (Zilarrezko Hartza) (*El otro lado de la esperanza*, 2017) edo Cannesko Zinemaldiko Epaimahaiaren Sari Nagusia (*Fallen leaves*, 2023) bezalako sari garrantzitsuekin aintzatetsia, Kaurismäkik filmografia erabat humanista eraiki du, maitagarrien ipuin-aldamio batekin masa-kulturatik baztertutako guztiak babesten dituela dirudiena. Miguel Zozayak *Nubes pasajeras* obrarako idatzi zuen bezala, "bere forma minimalistak Robert Bresson edo Yasujiro Ozu bezalako egile handiengandik edaten dute zuzenean; marjinazio, langabezia eta desamodioz gainpopulatutako gizarte baten alderdi gogorrenen berri emateko duen interes sutsuak, berriz, Luis Buñuelenarekin lotzen du bere obra".

Noraezean dabilen langile-klase bat erakusten diguten hainbat filmen barruan kokatua, *La chica de la fábrica de cerillas* istorio tragikomiko baten bidez klase horri egindako monumentua da, non, zuzendariaren hurrengo filmak definitzen dituen justizia poetikotik urrun, protagonista bere justizia propioa aurkitzen saiatuko da gizarte etsai baten erdian.



LA CHICA DE LA FÁBRICA DE CERILLAS (*Tulitikkutehtaan tyttö*)

Osteguna 19 | 19:30h.



Neska bakarti bat lan mekaniko eta errutinazkoa egiten du pospolo-fabrika batean. Etxera iristean, bere aitaorde gaiztoa eta amaren maitasun eza jasan behar du. Gauetan dantatzera ateratzen da, dibertitu eta bikotekidea aurkitu nahian, baina inoiz ez du zorterik izaten.

La chica de la fábrica de cerillas, Timo Salminenek maisuki filmatutakoa, aberastasun formal eta tematiko handiko film luzea, Aki Kaurismäki zinemagile finlandiarraren estilo zinematografikoaren eta umore-zentzu gaiztoaren adierazgarri da. Kaurismäkik berak esango du „gauzak eta filmak ezin dira azaldu. Ongi eginak edo gaizki eginak daude, erdipurdikoak edo fantastikoak dira, alferrik da azaltzea ... Baieztapen horri jarraituz, *La chica de la fábrica de cerillas*, zalantzarik gabe, film fantastiko eta guztiz zabalezina da.

Zuzendaritza eta gidioia:

Aki Kaurismäki

Musika: Reijo Taipale

Argazkilaritza: Timo Salminen (C)

Antzezleak: Kati Outinen, Elina Salo, Esko Nikkari, Vesa Vierikko, Silu Seppälä, Reijo Taipale.

Herrialdea, Urtea

Finlandia, 1990

Iraupena

69 min

Hizkuntza

B.O finlandesez,
azpitoluak espainieraz

Aurkezlea **Vanina Vázquez**

PUNTO DE VISTA FOKUA



Punto de Vistak bere fokuekin jarraitzen du – 2026an apirilaren 20tik 25era egingo den jaialdiaren aurretik – “reenactment” kontzeptutik abiatuta. Historiarekin jolasten duen praktika zinematografikoa, bere joskera zurrunik hautsiz interpretazio berriak sortzeko. Narimane Marik, film honen zuzendariak, bere estreinaldi komertzialean esan zuen bezala: “Egin dezagun nahi duguna historiarekin”. Bigarren saio honetan, *Loubia Hamra-k*, Aljeriako Gerran matxinatutako borrokalariak elikatzen zituzten babarrunak aipatzen dituen izenburuak, flatulentzia asko eragiten zituena, garai horretako berrinterpretazio ausart eta apurtzailea da. Aljeriako soldaduen eta herritarren bizipenak Aljerko Bab el Oued auzoko neska-mutil talde baten esku daude. Inprobisazioarekin lotutako antzerki-lan baten ondoren, gertakariak eta kontatu dizkieten istorio mitikoak beren erara birstortzen dituzte. Aurpegietan, gorputzetan eta kostaldeko paisaia ahaztezinetan irradiatzen den edertasun batekin, kolektiboki erresistentzia antikoloniala irudikatzen dute, dibertituz, moxorrotuz, korrika eta dantzan, Jean Vigoren espiritu errebeldearekin eta une historiko horretako kontzeptu garrantzitsuenaren eskutik: askatasuna.

PUNTO DE VISTA

LOUBIA HAMRA (*Alubias Rojas*)

Osteguna 26 | 19:30h.



Aljeriaren okupazio frantsesean kokatu behar gara. Haur talde bat hondartzan jolasten ari da, babarrun gorrietan bakarrik oinarritutako dietaz kexatzen diren bitartean. Okupatzailearen zapalkuntzaren aurrean, ez dira geldirik egongo. Kolono baten etxea txerri-maskara batekin eraso, hilerri bat profanatu eta soldadu bat bahituko dute.

Loubia Hamra Aljeriako Independentzia Gerraren berrinterpretazio aske bat da, bere 50. urteurrenean egina, alegiatik benetakoaren alde egiten duena.

Zuzendaritza, gidoia eta argazkilaritza:

Narimane Mari

Musika: Zombie, Zombie

Herrialdea, Urtea

Argelia, Frantzia
2013

Iraupena

77 min

Hizkuntza

B.O arabiarrez eta frantsesez,
azpitoluak espainieraz

Aurkezlea **Cristian Ruiz**

FILMOTECA EN NAVARRA FILMOTEKA NAFARROAN

Leiza / Leitzia

Casa de Cultura *Kulturetxea*

Otsailak 1 Febrero
19:30



OMBUAREN ITZALA

Presentación y coloquio - Aurkezpena eta solasaldia
Patxi Bisquert

INFORMAZIO ERABILGARRIA

Filmoteca Nafarroa ^{ko}
de Navarra Filmoteca

Prezioak

- **Nafarroako filmoteka** (Otsailak 5 eta 12): 1 €.
- **Beste saioak:** 3€.
- **10 SARRERAKO ABONAMENDUA** (6 hilabeterako balio du): 20€.

Abonamenduek ez dute esan nahi saioetarako sarrerak erreserbatzen direnik, Filmotekako leihatilan sarrerak eskuratzeko eskubidea baizik, betiere dagokion saiorako sarrerak geratzen badira. Beraz, lehiatilara behar besteko aurrerapenarekin iristea gomendatzen da, sarrerak eskuratzeko.

Sarreraren salmenta

- **Lehiatilan:** Saioa dagoen egun guztietan. Leihatilaren irekiera saioa hasi baino 45 minutu lehenago.
- **Internet bidez:** www.filmotecanavarra.com webgunean (saioa hasi baino ordu erdi lehenago arte).
- **Telefonoz:** 679 968 580

Saioa hasi ondoren, ez da sarrerarik kaleratuko eta ez da aretora sartzen utziko.

Bizikidetza eta higieine onaren alde, ezin da janaririk edo edaririk kontsumitu proiektzio-aretoaren barruan.

Programa aldaketei lotuta dago. Gerta daitezkeen gorabehera guztiak www.filmotecanavarra.com webgunearen bidez jakinaraziko dira.

Proiektzioak

Filmak jatorrizko bertsioan proiektatzen dira, gaztelaniazko azpitituluekin. Nafarroako Filmotekak akordio bat du EOIPrekin, ikasleei saioetarako sarbidea errazteko.



Informazio gehiago
www.filmotecanavarra.com



NAFARROAKO FILMATEGIA
Nafarroako Liburutegiaren eta Filmategiaren Eraikina
Antonio Pérez Goyena pasealekua, 3. 31008 Iruñea.
Tel: 848 424 759. filmoteca@navarra.es